



DONOSTIAN

LGTBI+FOBIAREKIN

LOTUTA IZANDAKO

INTZIDENTZIEI BURUZKO TXOSTENA

2025





DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Giza Eskubideak
Derechos Humanos

Egilea:

Zaira García Dafonte
Sorginlore Gizarte Elkartea

Koordinazioa:

Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Bulegoa

Diseinua eta maketazioa:

Ytantos Graff

2026



AURKIBIDEA

Hitzaurrea	5
Sarrera	6
Orientabide batzuk	8
Emitzak	11
Emitzak konparatuak	23
Ondorioak	25
Bilakaera 2021-2025	27
Gomendioak	28
Erreferentziak	31
 Eranskinak	
1. Glosarioa	33
2. Intzidentziak jasotzeko txantiloia	38







HITZAURREA

Txosten honetan jasotako gorabehera bakoitzaren atzean indarkeria lehen pertsonan pairatu duen pertsona bat dago. Kalean, aisialdirako lokal batean, bere inguru hurbilean, bere auzoan bertan. Hemen, Donostian.

Bosgarren urtez jarraian, Donostiako Udalak LGBTI+fobiaren lotuta izandako intzidentziei buruzko txostena argitaratu du. Gardentasunaren ariketa beharrezkoa, baina baita erantzukizun instituzionalarena ere. Gertatzen denari izena jartzea baita horri aurre egiteko lehen urratsa. Eta errealitatea aitortuz bakarrik egin dezakegulako aurrera hiri askeago, seguruago eta justuago baterantz.

Udalak, Udaltzaingoak, Ertzaintzak eta Gehitu, Euskal LGBTIAQ+ Behatokia, Ehgam, Berdindu eta Irutxuloko Hitza bezalako erakundeek elkarrekin egindako lanari esker da posible txosten hau. Edozein diskriminazio- edo indarkeria-egoera atzemateko, laguntzeko eta horiei erantzuteko ezinbesteko lankidetzak.

Erakundeok eskubideak babesteko eta konfiantza sortzeko betebeharra dugu. Baina LGBTI+ pertsonen segurtasuna eta askatasuna ez dira soilik instituzioetatik eraikitzen. Taberna bakoitzean, gela bakoitzean, kiroldegi bakoitzean, atari bakoitzean eta eguneroko elkarrizketa bakoitzean ere eraikitzen dira. Injustizia baten aurrean gizarte batek beste aldera ez begiratzea erabakitzen duenean eraikitzen dira.

Izan ere, LGBTI+fobiari aurre egiteak guztion arteko lana izan behar du. Erakundeak, gizarte-erakundeak, segurtasun-kidegoak, hezkuntza-espazioak, elkarte-sarea eta baita hiri honetako bizilagun bakoitza ere. Konpromiso kolektibotik soilik eraiki ahal izango dugu errespetuan, askatasunean eta benetako berdintasunean oinarritutako elkarbizitza.

Horregatik, txosten honek herritar guztien inplikaziorako dei kolektiboa ere izan nahi du. Bizikidetzak ez da arau edo protokoloekin bakarrik defendatzen; errespetutik, enpatiatik eta gorrotoaren aurrean isilik ez dagoenaren ausardiatik defendatzen da.

Gure helburua argia da: Hiri bat, Donostia, non inork ez duen ezkutatu behar nor den seguru sentitzeko. Aniztasuna harro egoteko arrazoia den hiri, beldurrik eragiten ez duena.

Txosten bakoitza tresna da aurrera egiten jarraitzeko.
Datu bakoitza, hobetzeko aukera bat.
Salaketa bakoitza, pauso gehiago hiri kontziente eta konprometituago baterantz.

LGTBI+fobiaren aurrean: ikusgarritasuna eta ekintza.
Indarkeriaren aurrean: akonpainamendua eta babesa.
Gorroto diskurtsoen aurrean: irmotasuna eta konpromiso demokratikoa.
Donostiak ez baitu beste alde batera begiratzen.

Iñigo García Villanueva

Aniztasuneko, Inklusioko eta Ingurumenako zinegotzia



SARRERA

Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Bulegoak aginduta egin da dokumentu hau, 2025eko urtarrilak 1etik abenduaren 31ra arte Donostian LGBTI+fobiaren ondorioz gertatu diren intzidentziak, erasoak, diskriminazioak eta gorroto-delituak biltzeko asmoz.

[Donostian 2021/2022an izandako intzidentzia LGBTI+fobikoei buruzko txostenaren](#), [Donostian 2023an izandako intzidentzia LGBTI+fobikoei buruzko txostenaren](#) eta [2024an Donostian LGBTI+fobiak izandako intzidentziei buruzko txostenaren](#) jarraipena da. Horrela, azterketa konparatu bat egin daiteke, epe laburreko joerak aztertzeko eta epe ertainekoak aurkezteko.

[Euskadiko gorroto-gertakariei buruzko 2024ko txosteneko](#) datuek (2025) agerian uzten dute erregistratutako delituak urritu egin direla, 281etik 2023an 236ra 2024an. Hala ere, sexu-orientazioari eta genero-identitateari lotutako gorroto-delituak 45 kasutik 54ra igo dira, bigarren arrazoi ohikoena izaten jarraitzen dute baina joera handitu da. Nahiz eta datuen beheranzko jo duten, goranzko joera izaten jarraitzen dute COVID 19 aurreko txostenekin alderatuz. Horrez gain, [Espainian 2024an izandako gorroto-delituaren bilakaerari buruzko txostenak](#) (2024) ere motibazio hori bigarren kausa dela estatuan erakusten du, eta %1,15an handitu dela 2023tik 2024ra.



Gainera, [Neurtu 2021, EAEko aniztasunari buruzko barometroa: sexu- eta genero-aniztasunarekiko pertzepzio eta jarrerak](#) izenburu dun Ikuspegiren (2022) ikerketaren harira, EAEko populazioaren %50ak komentario LGBTI+fobikoak entzun ditu, %42,5ak irainak, %22ak LGBTI+ pertsonen isolamendua bizi izan du, %17,9k mehatxuak eta %13,5ak eraso fisikoak.

Informazio horrek eta datuen igoerak agerian uzten dute egoera LGBTI+fobikoak behar bezala erregistratu, analizatu eta aztertu behar direla, *ad hoc* erantzunak diseinatzeko. Erantzun horiek sexu- eta genero-disidentziek oraindik ez dituzten eskubideak eta askatasunak bermatzeko izan beharko dira.

Garrantzitsua da txosten honetan jasotako intzidentziak ez ulertzea gertaera isolatu eta puntualak bezala, ezta diskurtso LGBTI+fobikoetatik urrun dauden gertakariak bezala ere. Hori guztia urteetan zehar errepikatzen den egiturazko indarkeria baten parte baita. Indarkeria hori meta-egonkorra da, hau da, indarkeria adierazteko moduak aldatzen diren arren, indarkeria helburu berarekin mantentzen da: zisheterosexista den statu quo-ari eustea. Gainera, azken urteotan, gorroto-diskurtsoa gorroto-delituen aurreko pausua da eta hauei zilegitasuna ematen dion tresna eraginkorra.

Bestalde, txosten hau irakurri aurretik, aipatu beharra dago dokumentu honetan ez dela aipatzen gertakariaren biktimak edo egileak¹ identifika ditzakeen daturik, eta, beraz, anonimotasuna eta konfidentziasuna errespetatzen dira. Hala ere, azpimarratu behar da errealitatea intersektionala dela, eta, beraz, eraso egiten duten pertsona batzuei zein biktima batzuei hainbat



ezaugarri eragiten dietela, zeharka, eta horiek zapalkuntzaren kausa izan daitezkeela, hala nola: jatorria, kultura, adina, dibertsitate funtzionala, gizarte-bazterketa jasateko arriskua, eta abar.

Beraz, txosten laburra da hau, hirian sexu- eta genero-dibertsitatea garatzea zailtzen duten egoerak kuantifikatu eta irudikatzea xede duena. Deskribatzen diren gertakariak giza eskubideak erabat baliatzeko eta bizikidetzan lortzeko zenbat lan dagoen aurretik erakusten dute.

Amaitzeko, garrantzitsua da aipatzea, seguraski, hemen argitaratuta daudenak baino askoz intzidentzia gehiago izango direla. Dokumentu honetan, gizarte-entitateetan, komunikabideetan eta erakunde publikoetan salatu direnak baino ez dira jasotzen. Beraz, beharrezkoa da infrasalaketaren² fenomenoak azaltzea eta kontuan hartzea. Era berean, azaldu behar da iturri bakoitzeko datu-bilketa desberdin egiten dela, eta, kasu batzuetan, ez dela zehatza.


1. Dokumentuan, "egile" hitza erabiltzen da intzidentzia nork eragin duen adierazteko. Batzuetan, "erasotzaile" hitza ere erabiltzen da, eraso baita.

2. Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Agentziaren arabera hau %90era arte heldu daiteke.

ORIENTABIDE BATZUK ³

Mendebaldeko gizarteen egungo sexu-genero sistema hegemonikoa dimentsio hauen arteko harremanean oinarritzen da: sexua, generoa (identitatea eta adierazpena) eta desira. Hona hemen zer jotzen den arauaren barrukotzat eta zer ez:

Sexu-genero sistema (hiru dimentsio: sexoa, generoa, desira)



1. Irudia. Sexu-genero sistemaren dimentsioak.
2018, Kualitate Lantaldea eta Aldarte.

3. Kontzeptu gehienak glosarioan zehazten dira (1. eranskina).

Ikus daitekeenez, zis pertsonak, jaiotzean esleitutakoaren arabera genero-identitatea garatzen dutenak, eta gainera, heterosexualak direnak, onarpena eta pribilegioak dituzte gizartean. Hala ere, nabarmendu behar da faktore patriarkalak eragiten duela emakume-gizon rola bereiztea, eta emakumeak gizonen mende jartzen dituela. Era berean, arauz kanpoko aukera guztiek pairatzen dute desberdintasun hori.

Beraz, arauaren barruko aukerak bitarismoa, zisexualitatea eta heterosexualitatea dira, bai eta femeninotzat hartzen dena maskulinoaren aurrean gutxiestea ere. Gizarte-sistema zisheteronormatiboa da eta araua errepikatzen ez duten pertsonak baztertzen ditu, erasoak, diskriminazioak edota bazterketak jasateko arriskua eraginez.

Hala bada, LGBTBI+ sexu- eta genero-disidentziak biltzen dituen kategoria analitiko gisa erabiltzen da. Argi dago sigla bakoitzaren errealitatea askotarikoa dela eta, beraz, etengabe aldatzen ari diren egoerak biltzen dituen fikzio bat dela. Horrenbestez, LGBTBI+ kontzeptua baliatuz, LGBTBI+fobia kontzeptua erabil dezakegu, gorroto-delituak eta zisheterodisidentzien aurkako gaitzespen-, diskriminazio- eta bazterketa- gertakariak biltzeko.

Laburbilduz, txosten honen xedea 2025ean hirian gertatu diren oinarri LGBTBI+fobikoko intzidentzia guztiak dira, hau da, arau zisheterosexistan oinarritutako intzidentzia guztiak.







EMAITZAK

Honako emaitza hauek informazio-iturri hauei egindako kontsultetatik atera dira:

Iturriak

- [AMPGYL Elkartea](#)
- [Gehitu Elkartea](#)
[Eraberean sarea, arraza-, etnia- edo nazio-jatorriagatiko diskriminazioaren aurkakoa \(Eusko Jaurlaritza\)](#)
[Euskal LGTBIAQ+ Behatokia](#)
- [Loratuz lotu Elkartea](#)
- [Naizen Elkartea](#)
- [Donostiako Piratak](#)
- [Ehgam](#)
- [Berdindu Gipuzkoa](#)
- [Gizarte Ekintza zuzendaritza. Donostiako Udala](#)
- [Berdintasun Saila. Donostiako Udala](#)
- [KIUB. Kontsumitzailea Informatzeko Udal Bulegoa. Donostiako Udala](#)
- [Udaltzaingoa. Donostiako Udala](#)
- [Ertzaintza](#)
- [SFCUS - Gizarte Larrialdien Koordinaziorako Zerbitzua. Gipuzkoako Foru Aldundia](#)
- [Kontsumobide Donostia. Eusko Jaurlaritza](#)
- [Ararteko. Euskadiko Herriaren Defendatzailea. Eusko Jaurlaritza](#)
- [Berria](#)
- [Diario Vasco](#)
- [Irutxuloko Hitzia](#)
- [Noticias Gipuzkoa](#)

Hurrengo tauletan 2025ean erregistratutako intzidentziak ⁴ azaltzen dira ⁵. Guztira 22 intzidentzia jaso dira. Salaketak intzidentziaren kausaren arabera antolatu dira, hau da, intzidentzia eragin duen fobiaren arabera ⁶.

4. Intzidentzia kontzeptua erabiltzen da zabalena delako, baina garrantzitsua da gogoratzea egoera batzuk gorroto-delituak direla.

5. Egoerak labur-labur deskribatu dira.

6. Intzidentzia kategorizatu da, eta ez biktimak; horrela, egiturazko kausak ikusarazten dira, eta fokua biktimarengandik kentzen da. Adibidez, intzidentzia bat izan daiteke homofobikoa eta biktimak homosexualak ez izatea, eta abar. Bide beretik, aurreko txostenen ondorioetan azaldu den bezala, eta honako honetan ere bai, intzidentzia batzuk ekintza fobikoa izan beharrean arauen erreproduktzio zisheterosexista dira. Hala ere, fobia gisa aurkezten dira, ektuktura fobikoaren parte direla ulertzen delako.

Intzidentzia LGBTBI+fobikoak

2025ean Donostian

Kod.	Data	Iturria	Tokia	Tipologia	Kausa	Biktimaren gen.	Egilearen gen.
25.16	25/02	Gehitu / Euskal LGBTBIQ+ Behatokia	Lantokia	Hertsapena, diskriminazioa, tratu umiliagarria, hitzezko eraso (irainak)	Transfobia	E	G, E (Taldea. Kopuru ezezaguna)

Azalpena:
Hainbat pertsonen lan egiten duten instalazioetako emakumeen komunitate sartzeari galarazten zioten; bere identitatea zalantzan jarri. Gainera, iseka egiten zioten modu etengabea eta nahita maskulinoan zuzentzen ziren biktimarekiko. Jokabide horiek etengabeak ziren eta biktimaren osasunean eragin larria izan zuten.

Kod.	Data	Iturria	Tokia	Tipologia	Kausa	Biktimaren gen.	Egilearen gen.
25.1	25/03	Berdindu	Kirol taldea	Ezezagutza	Transfobia	G	Ez dakigu / Ez dagokio

Azalpena:
Saskibaloi klub bateko jokalaririk adingabe trans baten datuen kudeaketa txarra. 2023an izena zein generoa aldatu eta dokumentazioa aurkeztu bazuen ere, 2025ean oraindik aurreko datuekin agertzen zen. Gainera, datu horiek publikoak dira, klubaren webgunean agertzen baitira eta taldekideen familiekin Whatsapp bidez partekatzen baitituzte.

Kod.	Data	Iturria	Tokia	Tipologia	Kausa	Biktimaren gen.	Egilearen gen.
25.13	25/05	Irutxuloko Hitza, Ehgam	Bide publikoa	Hitzezko eraso (irainak)	LGTBI+fobia	Ez dakigu / Ez dagokio	Ez dakigu / Ez dagokio

Azalpena:
[Sexu- eta genero-aniztasunaren aldeko graffiti baten gainean margotu eta irainak idatzi zituzten: "Degeneración", "No degen", sinbolo naziekin batera.](#)

Kod.	Data	Iturria	Tokia	Tipologia	Kausa	Biktimaren gen.	Egilearen gen.
25.14	25/06	Ehgam	Bide publikoa	Diskriminazioa, tratu umiliagarria	LGTBI+fobia	Ez dakigu / Ez dagokio	G

Azalpena:
Ekainaren 28ko manifestazioan, gizon batek keinu lizuna egin zion manifestazioko buruari.

Kod.	Data	Iturria	Tokia	Tipologia	Kausa	Biktimaren gen.	Egilearen gen.
25.15	25/06	Ehgam	Bide publikoa	Hitzezko eraso (irainak), diskriminazioa, tratu umiliagarria	LGTBI+fobia	E	G

Azalpena:
Manifestazio ondoko ballroom-ean, gizon batek dantzari bati grabazio lizuna egin zion eta ohartaraztean modu oldarkorrean erantzun zuen.

Kod.	Data	Iturria	Tokia	Tipologia	Kausa	Biktimaren gen.	Egilearen gen.
25.2	25/08	Berdintasun Saila. Donostiako Udala	Bide publikoa	Hitzezko eraso (irainak)	Homofobia	G	G (Taldea. Kopuru ezezaguna)

Azalpena:
Aste Nagusia zehar, biktimak "marikoi" bezalako irainak jaso zituen ezezagunen taldeengandik.

Kod.	Data	Iturria	Tokia	Tipologia	Kausa	Biktimaren gen.	Egilearen gen.
25.3	25/01	Udaltzaingoa, Ehgam	Bide publikoa	Derrigortzeak / larderia, hitzeko eraso (irainak)	Homofobia	M (Taldea. Kopuru ezezaguna)	Ez dakigu / Ez dagokio (Taldea. Kopuru ezezaguna)

Azalpena:

Topagune homosexual baten inguruan, kruising puntu bat, autoak oso azkar ibiltzen ziren eta oihu zein irainak egiten zituzten ibilgailuetatik. Intzidentzia hauek errepikakorrek izan dira.

Kod.	Data	Iturria	Tokia	Tipologia	Kausa	Biktimaren gen.	Egilearen gen.
25.4	25/06	Udaltzaingoa	Bide publikoa	Lapurreta, derrigortzeak / larderia, kalte materialak	Homofobia	G	M

Azalpena:

Biktima bere mutil lagunarekin muxukatzen ari zela, beste gazte batek motxila kendu eta lurrera bota zuen, ordenagailua apurtuz. Biktima ziur dago egileak bere sexu-orientazioarengatik egin zuela.

Kod.	Data	Iturria	Tokia	Tipologia	Kausa	Biktimaren gen.	Egilearen gen.
25.5	25/08	Udaltzaingoa	Kultur etxea	Hitzezko eraso (irainak)	Homofobia	G	G

Azalpena:

Biktimak poliziari deitu zion, hainbat pertsona gaua pasatzen ari zirelako lan egiten duen kultur etxeko sarreran. Ordu batzuk geroago, lokartuetako batek aurre egin zion galdetuz: "zuk deitu al duzu, marikoi putak?"

Kod.	Data	Iturria	Tokia	Tipologia	Kausa	Biktimaren gen.	Egilearen gen.
25.6	25/11	Udaltzaingoa, Ertzaintza	Ostalaritza establezi-mendua. Gaueko aisialdia	Eraso fisikoa, hitzeko eraso (irainak)	Homofobia	G	G (4)

Azalpena:

Lau mutilek gazte bati eraso egin zioten lagunekin hitz egiten eta keinuak egiten ikusi ondoren. "Afeminatutzat" jo zuten eta laurek "marikoi" oihukatu zioten, edalontzi bat edari bota zioten aurpegira eta ukabilkadak ematen hasi zitzaizkion. Biktima ospitalera eraman behar izan zuten, buruan hainbat kolpe jaso ondoren.

Kod.	Data	Iturria	Tokia	Tipologia	Kausa	Biktimaren gen.	Egilearen gen.
25.7	25/12	Udaltzaingoa	Bide publikoa	Hitzezko eraso (irainak), derrigortzeak / larderia	Homofobia	G	G

Azalpena:

Biktimak bere etxeko atarira hurbiltzean musika-kaskoak erantzi zituen. Une horretan mutil bat entzun zuen "marikoi" oihuka. Biktima atarian sartu zen, eta erasotzailea kanpoan geratu zen oihuka eta ateari listua botaz.

Kod.	Data	Iturria	Tokia	Tipologia	Kausa	Biktimaren gen.	Egilearen gen.
25.8	25/12	Udaltzaingoa	Bide publikoa	Hitzezko eraso (irainak), mehatxuak	Homofobia	G	G (2)

Azalpena:

Biktima txakurra paseatzen ari zela, bi gizonek liskar egin zioten "txibato" eta "marikoi" deituz. Mehatxu ere egin zioten. Biktimak ezagutzen ditu, behin biak beste batzuei lapurtzen ikusi eta poliziari deitu ziolako.

Kod.	Data	Iturria	Tokia	Tipologia	Kausa	Biktimaren gen.	Egilearen gen.
25.9	25/06	Ertzaintza	Bide publikoa	Hitzezko eraso (irainak), mehatxuak	Homofobia	G	G
Azalpena: Biktimak mehatxuak eta irainak jaso zituen sexu-orientazioaren ondorioz.							

Kod.	Data	Iturria	Tokia	Tipologia	Kausa	Biktimaren gen.	Egilearen gen.
25.10	25/09	Ertzaintza	Bide publikoa	Hitzezko eraso (irainak)	Homofobia	G	E
Azalpena: Ikaskide batek biktima iraindu zuen, "mierda marikoia, mierda gaya, gay putoa" deituz.							

Kod.	Data	Iturria	Tokia	Tipologia	Kausa	Biktimaren gen.	Egilearen gen.
25.11	25/11	Ertzaintza	Ostalaritza establezimendua	Hitzezko eraso (irainak)	Homofobia	M	E
Azalpena: Emakume batek oihu egin zion biktimari: "Marikon, itzuli alah-ra".							

Kod.	Data	Iturria	Tokia	Tipologia	Kausa	Biktimaren gen.	Egilearen gen.
25.12	25/01	Irutxuloko Hitza, Ehgam	Bide publikoa	Hitzezko eraso (irainak)	Homofobia	Ez dakigu / Ez dagokio	Ez dakigu / Ez dagokio
Azalpena: Hirian ezaguna zen artista baten graffiti baten gainean "Marikoi. Stop gay." jarri zuten, nazismoak erabilitako gurutze zelta batekin.							

Kod.	Data	Iturria	Tokia	Tipologia	Kausa	Biktimaren gen.	Egilearen gen.
25.17	25/03	Gehitu / Euskal LGTBIAQ+ Behatokia	Pixatoki publikoak	Diskriminazioa	Homofobia	G	G (Taldea. Pertsona kopuru ezezaguna)
Azalpena: Biktimek, batez ere GSHkoek adierazi zuten pixatoki publiko batean zeudela sexu-praktikak eskaini zitzaizkiela. Ondoren, herritarren segurtasuna babesteko 4/2015 Lege Organikoaren (Mozal Legea) 37.5 artikulua aplikatuz, izuna jaso zuten.							

Kod.	Data	Iturria	Tokia	Tipologia	Kausa	Biktimaren gen.	Egilearen gen.
25.18	25/08	Gehitu / Euskal LGTBIAQ+ Behatokia	Lantokia	Hitzezko eraso (irainak)	Homofobia	G	G
Azalpena: Lankide batek iraindu eta mehatxatu egin zuen biktima, inolako arrazoirik gabe: "kontuz ibili nirekin". Bakean uzteko eta irainik zein mehatxurik ez egiteko erantzun ondoren, "marikoi" oihukatu zion.							

Kod.	Data	Iturria	Tokia	Tipologia	Kausa	Biktimaren gen.	Egilearen gen.
25.19	25/09	Gehitu / Euskal LGTBIAQ+ Behatokia	Bizilekua, sare sozialak	Hitzezko eraso (irainak), derrigortzeak / larderia, tratu umiliagarria	Homofobia	G	G
Azalpena: Erasotzaileak biktimaren irudia erabili zuen (aurrez elkar ezagutzen zuten) TikTok aplikazioan, iseka egin zion sexu-orientazioarengatik eta baita bere amonaren heriotzari ere. Gainera, bideoan erregistratuta geratu zen familiaren etxeko sarraila nola bandalizatu zuen.							

Kod.	Data	Iturria	Tokia	Tipologia	Kausa	Biktimaren gen.	Egilearen gen.
25.20	25/10	Gehitu / Euskal LGTBIAQ+ Behatokia	Bizilekua	Hitzezko eraso (irainak), eraso fisikoa	Homofobia	G	E
Azalpena: Anaiaren eta arrebaren arteko liskar familiarra zela eta, bigarren honek zaplazteko bat eman zion eta iraindu egin zuen: "mierda marikoida".							

Kod.	Data	Iturria	Tokia	Tipologia	Kausa	Biktimaren gen.	Egilearen gen.
25.21	25/10	Gehitu / Euskal LGTBIAQ+ Behatokia, Ertzaintza	Bide publikoa	Hitzezko eraso (irainak), kalte materialak, derrigortzeak / larderia	Homofobia	G	G
Azalpena: Saltoki bateko zerbitzuarekin ados ez zegoen bezeroarekin topo egin zuen bidegorri batean dendako arduradunak, biak bizikletaz. Elkarriketa labur bat izan zuten, erasotzaileak "mierda marikoida" iraindu zuen, atzeko gurgilari ostiko bat eman zion eta atzetik segika hasi zitzaion. Biktimak beldurtuta ihes egin zuen.							

Kod.	Data	Iturria	Tokia	Tipologia	Kausa	Biktimaren gen.	Egilearen gen.
25.22	25/11	Gehitu / Euskal LGTBIAQ+ Behatokia	Bide publikoa	Tratu umiliagarria	Homofobia	G	Ez dakigu / Ez dagokio (Taldea. Kopuru ezezaguna)
Azalpena: Patruila batek biktima identifikatu eta aldi baterako atxiki zuen bitartean, biktimak homosexuala zela zehaztu zuen. Bere orientazioari buruzko iruzkin umiliagarriak eta balorazioak jaso zituela dio.							


Taulan zehaztutako kasuez gain, beste kasu batzuk ere azaldu dira, hainbat arrazoiarengatik sartu ez direnak, hala nola, biktima hirikoa izan arren beste udalerrri bateko zerbitzuetan gertatu izana.

Era berean, agerian utzi behar da gizarte-bazterkeria, norbere nortasuna/orientazioa ikusarazteko beldurra edota hori garatzeko zailtasunak daudela egiturazko LGBTI+fobikoa indarkeriaren ondorioz, batez ere, profil interseksionaletan, esaterako, LGBTI+ asilo-eskatzaileetan.

Jarraian, aldagai bakarren zein aldagai gurutzatuen informazioa biltzen duten grafikoak erakusten dira.


Intzidentziak guztira, hilabeteka

1. grafikoa




Intzidentziak guztira, tokiaren eta leku motaren arabera

2. grafikoa




Intzidentziak guztira, arrazoiaren arabera

3. grafikoa



Intzidentzia-erasoaren arabera intzidentzien ehunekoak


4. grafikoa



Intzidentziaren egileen generoaren arabera

Pertsona kopuruen arabera neurtua ⁷

5. grafikoa




Egilearen/egileen generoaren arabera ehunekotan

Kasuen arabera

6. grafikoa

Gertakaria eragin edo eraso burutu duten 22 pertsonetatik, 15 gizonak dira, 4 emakumeak eta 3 kasutan pertsona kopurua ezagutzen ez den arren, gizonetzkoa dira. Kasuen arabera ehunekoari dagokionez, egoeren %40,9an bakarka aritzen diren gizonetzkoak dira eta %18,2an taldean aritzen direnak. Bestalde, kasuen %13,6an egileak emakumeak dira eta kasuen %4,5ean, hau da, behin, gizonak eta emakumeak (taldean) dira gertakaria eragiten dutenak.




7. Egile edo biktimen kopurua ezagutzen ez diren kasuetan, bakarra bezala hartzen da. Kasuetako baten gizonetzko eta emakumezko bat adierazten diren arren, banatuta hartzen dira kontuan, ez baitute intzidentzia intzentionalki taldean gauzatzen.

Egilearen/egileen generoaren eta kausaren arteko harremana

Kasu kopuruaren arabera


7. grafikoa



Egilearen generoa eta intzidentziaren tipologiaren harremana

Kasu kopuruaren arabera


8. grafikoa



Gizonezko egilea eta intzidentziaren tipologia

Kasu kopuruen arabera


9. grafikoa



Emakumezko egilea eta intzidentziaren tipologia

Kasuen arabera


10. grafikoa



Egileak gizonezkoak eta emakumezkoak diren kasu bakarrean, intzidentziaren tipologia honakoa da: hitzezko erasoa, diskriminazioa, tratu apalesgarria eta derrigortzeak.


Biktimen generoa ehunekotan

11. grafikoa




Biktimaren generoa eta intzidentziaren tipologiaren harremana

12. grafikoa




Iturriaren arabera kasu kopurua ⁸

13. grafikoa



Kasuaren arabera informazio iturri bakoitzaren intzidentzia kopurua

14. grafikoa




8. Egin diren 19 kontsultetatik soilik 7 iturrik dute kasuren bat erregistratua.



EMAITZA KONPARATUAK


Urteen arabera intzidentzia kopuru totalak: 2021, 2022, 2023, 2024 eta 2025

15. grafikoa




Hilabetearen arabera intzidentzia kopurua: 2021, 2022, 2023, 2024 eta 2025

16. grafikoa




Taldean gauzatutako intzidentzia kopurua: 2021, 2022, 2023, 2024 eta 2025

17. grafikoa




**Egile(ar)en generoaren arabera intzidentzia-ehunekoa:
2021, 2022, 2023, 2024 eta 2025**

18. grafikoa



**Kasuaren arabera intzidentzien ehunekoa:
2021, 2022, 2023, 2024 eta 2025⁹**

19. grafikoa



9. Grafikoa argi ulertzeko asmoz, ez dira azaltzen kasu bakar bateko kausak.



ONDORIOAK

1

Intzidentzia gehien izan dituzten hilabeteak ekaina, abuztua eta azaroa dira. Beraz, aurreko txostenean adierazi zen bezala, nolabaiteko urtaro-izaera dagoela baieztatzen da. Aurreko urteekin alderatuta, oraingoan ez da intzidentziarik jaso ez apirilean ezta uztailen, eta bereziki nabarmentzekoa da uztailen bat ere ez egotea. Hala eta guztiz ere, udako garaian igoera nabaria izaten jarraitzen du. Edonola ere, ez da ikusten erasoak bereziki gaueko espazioekin lotuta daudenik, hortaz, esan daiteke igoera gizarte-harreman handiagoaren ondorio dela. Hori bera baieztatzen da Eusko Jaurlaritzaren gida honetan: [Gorrito arrazista, xenofobo, antigitano eta LGTBIfobikoko gertakarien aurrean tokian-tokian jarduteko gida Eusko Jaurlaritzaren gida](#). Hala ere, Euskadiko 2024ko gorrito-intzidentzien txostenean ez da ondorioztatzen urtaroak kasuen igoeran eraginik duenik, izan ere, ikus daitekeenez, LGTBIfobiagatik eragindako delituak nahiko antzera mantentzen dira urteko urtaro guztietan ¹⁰.

2

Espazio publikoak, bereziki kalea (22 kasuetatik 13), **dira intzidentzia gehien gertatzen diren lekua.** Oraingoan, espazio pribatuak 5 kasura iristen dira, hau da, %22,7ra, eta honela banatzen dira: etxebizitzak, lan-inguruneak eta kirol-klubak. 2024, 2023 eta 2021/2022 txostenek, baita [Euskadiko 2024ko gorrito-intzidenteen txostenak](#) ¹¹ ere, kalea agertoki nagusi gisa adierazten dute.

3

Homofobiak kausa hedatuena izaten

jarraitzen du 17 kasu pilatuz, hau da, %77,3a. Alde handiarekin LGTBIfobia eta transfobia dira hurrengo kausak, 3 eta 2 kasurekin hurrenez hurren. 2025ean ez da intzidentzia lesbofobikorik erregistratu. 2025ean plazaratutako [Ikusguneren VIII. txosteneko 2024ko](#) datuetan ere, Gasteizen, homofobia izan zen kausa nagusia (11 kasu), ondoren transfobia (7) eta gero LGTBIfobia (3). Antzekotasunak ikus daitezke bi hiriburuen artean, nahiz eta urte desberdinetako datuak izan.

4

Eraso mota ohikoena hitzezkoa erasoak dira, intzidentzien %43a. Ondoren, alde

nabarmenarekin, hertsapenak (%15), tratu degradatzailea (%13) eta diskriminazioa (%10) datoz. 2025ean, beraz, ez da errepikatzen aurreko urteetako eredua, non eraso fisikoak bigarren ohikoenak ziren. Horrez gain, aurreko urteekin alderatuta, eraso fisikoak nabarmen jaitsi dira: 2024ko sei kasuetatik 2025eko bi kasura igaro baitira. 2024an intzidentzien laurden bat inguru ziren, eta 2023an herena. Ondorioz, joera beheranzkoa dela ondorioztatzen da.

10. 21. figura (36. orrialdea): neguan 10, udaberrian 15, udan 13, udazkenean 16.

11. 67. orrialdea.

5

22 egoerek gutxienez 22 pertsona biltzen dituzte intzidentzia eragin edo eraso egin dutenak, banaka edota taldeka jarduten. Ondorioztatzen da berriro ere **intzidentzia edo eraso gehienak gizonek egiten dituzte**la, %59,8ra iristen baitira. Datu hau 2024koaren antzekoa da (%62,5).

2023ko txostenean emakume erasotzaileak askotariko motibazioetatik erasotzen zuten bitartean, oraingoan 2021/2022ko datuetara itzultzen da, homofobia kausa nagusi bihurtuz. Gizonen kasuan ere kausa nagusia homofobia izaten jarraitzen du.

Gizonek gehien eragindako intzidentzia mota hitzezko eraso da, eta ondoren hertsapenak. Hitzezko eraso eta eraso fisikoen arteko aldea handitu egin da. Emakumeen kasuan ere hitzezko erasoak izanik ohikoenak.

6

Kasuen %68,2an biktimaren generoa gizonezkoa da eta %9,1ean emakumezkoa.

2025ean ez da erregistratu identitate edo adierazpen disidenteak dituzten biktimen kasurik. Gehienetan, biktimak bakarrik daudenean jasaten dituzte erasoak.

Emakumeen eta gizonen aurkako eraso motetan aldeak daude: emakumeek maizago jasaten dute tratatu umiliagarria eta gizonak, aldiz, hitzezkoak eta fisikoak.

7

Kasu gehien jakinarazten dituzten iturriak hauek dira: Gehitu / Euskal LGTBIAQ+ Behatokia, Udaltzaingoa, Ertzaintza eta Ehgam.

Salaketa batzuk iturri desberdinetan errepikatzen dira, baina normalean pertsonak baliabide bakar batean jartzen du salaketa. Bestalde, 2025ean komunikabideek bi intzidentzia LGTBI+fobiko bakarrik jaso zituzten hirian.

Deigarria da txosten bakoitzerako intzidentziak eman dituzten iturrien kopurua. 2021/2022ko txostenean 10 baliabidek zuten gutxienez kasu bat, aldiz, 2023, 2024 eta 2025eko txostenetan, hurrenez hurren, 5, 6 eta 7 iturrik zuten gutxienez kasu bat. Hala ere, LGTBI+fobiako egoeren kopuru osoa nahiko antzera mantendu da lau urteetan.

Mota honetako azterlanak, iturri instituzional eta sozial ugari dituztenak, beharrezkoak direla ondorioztatzen da, diziplina anitzeko erakundeetan erregistratutako gorabeherak jasotzen baitituzte, errealitate osoagoa islatuz.

Halaber, sarreran azaldu bezala, kontuan hartu behar da azpijakinarazpenaren fenomenoak, Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Agentziaren arabera %80-90era irits daitekeena. Beraz, 2025ean jasotako 22 kasuez gain, seguruenik intzidentzia, eraso, diskriminazio eta gorroto-delitu gehiago gertatu dira Donostian. Izan ere, 2023ko [Donostiako LGTBI+ errealitateen txostenaren](#) arabera, inkestan parte hartu zuten 254 pertsonetatik %76,4k azken 5 urteetan diskriminazioaren bat jasan du. Horrek esan nahi du 194 pertsonak bizi izan dutela halako egoeraren bat hirian, eta batez beste urteko ia 39 diskriminazio lirakeela. Horrela agerian geratzen da jende askok ez duela salaketarik egiten.



BILAKAERA 2021-2025

Intzidentzien kopurua antzera mantentzen da: 2021ean 19 eta 2022an 18 izatetik, 2023an 15, 2024an 24 eta 2025ean 22 izatera. Halaber, aipatu den bezala, **udako garaian erasoak handitzeko joerak jarraitzen du.**

2021etik 2023ra taldeka egindako erasoen kopuruan beherakada arina ikusi bazen ere, 2024 eta 2025ean berriro igo da lehen txosteneko mailara. Egileen generoari dagokionez, taldeak gehienetan gizonen osatuta daude, aurreko urteetako portzentaje antzekoetan.



Ilido berean, **egile gehienak gizonetzkoak dira**, 2025ean kasuen %59,8ra iritsiz. Emakume bakarkako egileen kopurua apur bat jaisten da, %13,6ra. Tipologiari dagokionez, aurreko txostenetan bezala, gizonen artean ohikoena hitzezko eraso da; hala ere, oraingoan eraso fisikoak jaitsi egin dira eta hertsapenek gainditu dituzte. Emakumeen kasuan, hitzezko erasoak dira ohikoenak, eta ondoren eraso fisikoak datoz, 2024, 2023, 2022 eta 2021eko datuekin alderatuta.

Homofobia da kausa nagusia oraindik.

Oraingoan LGBTI+fobia da bigarren kausa (3 kasu), eta transfobia hirugarrena, 2024tik 2025era kasu kopurua mantenduz (2 kasu). Aurten, lesbofobiak ez du kasurik.

Oro har, datuak antzekoak dira aldaketa batzuekin. Bost urte hauetan joera egonkorra izan da. Beraz, beharrezkoa izango da jarraipena egitea etorkizunean joera berriak antzemateko.



GOMENDIOAK

Ondorengo gomendioak Donostiako Udalaren eskumenen barruan kokatzen dira, nahiz eta beste erakunde eta entitate askok ere sustatu ditzaketen neurriak izan. Iradokizunak hiru ardatzetan banatzen dira: ikerketa, prebentzioa eta arreta.

Ikerketa

1

Donostian LGTBI+fobiako intzidentzien txostena urtero edo bi urtean behin egiten jarraitzea.

Horrela, erregistro- eta bilketa-sistema hobetu ahal izango da; izan ere, Ikusgune Vitoria-Gasteizko LGTBI+fobiaren aurkako Behatokiak eta EHU/UPVko Giza Eskubideak eta Botere Publikoak UNESCO Katedrak adierazten duten bezala, ikerketak errepikatzean metodoa hobetzen da, errealitatea zehaztasun handiagoz islatzea lortuz eta, ondorioz, eragin-gaitasun handiagoa garatuz. Era berean, txosten hau egiten jarraitzeak hiriko LGTBI+fobiaren egoera neurtzeko balioko du, epe ertain eta luzeko joerak behatuz eta ezartzen diren neurrien eragin-gaitasuna egiaztatuz.

Neurri osagarri gisa, iturriei datuak jasotzeko sistema egoki bat sortzea proposatzen zaie¹², eguneroko lanean erraza eta operatiboa izan dadin. Halaber, Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Sailari gomendatzen zaio intzidentziak erregistratzeko kanalak ezagutaraztea. Azpimarratzen baita, erregistroaren kultura garatze dela gero eta zehaztasun handiagoz kartografiatzea ahalbidetuko duena.

2

Gai zehatzetan sakontzen duten **ikerketa espezifikoak sustatzea**, hala nola:

- Transexualitate egoeran dauden pertsonen egoera sozio-laborala, eta bereziki emakume trans*ena¹³.
- Herritarren artean LGTBI+fobiari buruz dauden pertzepzioena, baita Donostian bizi diren pertsonen LGTBI+fobiako intzidentziak edota erasoak ikusten dituztenean duten erreakzioena ere.
- LGTBI+fobia xehetasun handiagoz aztertzea: adin-tarteak, asteko egunak, komunikabideetan edota sare sozialetan dauden LGTBI+fobiako gorroto-diskurtsoak...

¹². Laguntza moduan eranskinetan eredu bat txertatzen da.

¹³. 2022ko ekainaren 23an onetsia, Udalbatzaren ohiko bilkuran.

Prebentzioa eta arreta

LGTBI+ politika plan global bat garatzea¹⁴, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren sexu- eta genero-aniztasun politikekin lerrokatua. Halaber, gomendatzen da hiriko bizikidetza sustapena barne hartzea, ikuspegi intersektionala¹⁵ izatea eta **udaleko arlo ezberdinetan zeharkakoa**¹⁶, hala nola: gizarte-ekintza, hirigintza jasangarria, osasuna eta ingurumena, alkatetza... Horrez gain, aditu profesionalekin eta sexu- eta genero-disidentzien mugimendu sozialetako eragile estrategikoekin batera egitea proposatzen da. Zentzu honetan, beharrezkoa izango da gaiari lotutako eragile anitzeko espazioak bultzatzea eta jarraipen-batzorde bat sortzea.

PREBENTZIOARI dagokionez, honako ekintza espezifiko hauek gomendatzen dira:

- ✓ Udal-administrazioan [otsailaren 15eko 4/2024 Legea, pertsona transak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa](#), izaera autonomikoa duena, **azkar eta modu egokian ezartzea**, bai eta [trans pertsonen benetako berdintasun eraginkorrari eta LGTBI+ pertsonen eskubideak bermatzeari buruzko otsailaren 28ko 4/2023 Legea](#) ere, estatu mailakoa. Alde horretatik, funtsezkoa izango da Udalaren eskumeneko alderdiei kasu egitea.
- ✓ **Mezu instituzionalen bidez, maskulinitatea deseraikitzen saiatzea**, gizonezko erreferente berriak babestuz eta **aniztasuna defendatuz**.
- ✓ **Sexu eta genero aniztasunari buruzko prestakuntza etengabea ematen jarraitzea** Udalari¹⁷ lotutako sail, enpresa publiko eta erakundeetako langile publikoei. Horrez gain, Udalak diruz lagundutako zerbitzuak sartzera ere proposatzen da.
- ✓ Jarrera LGTBI+fobikoak eta matxistak baztertzeko **testuinguru ahaldunduak sortzea** (komunitateak, establezimenduak, jaiak, kultura-guneak...).
- ✓ **Sentsibilizazio-kanpainak egitea gune estrategikoetan** (bide publikoa lehenestea iradokitzen da), egiturazko kausetan¹⁸ arreta jarri eta, batez ere, **erasotzailearen ohiko profilerazuzenduta. Erasoan aurrean, erantzukizunaz kontzientziatzeko kanpainak egitea**, eta oinarritzko arreta-jarraibideak ezagutaraztea: defentsa; biktimari laguntze (salaketa jarri nahi duen ala ez kontuan hartu gabe) eta intzidentziaren berri ematea. Halaber, beharrezkoa litzateke kanpainak egitea **LGTBI+ pertsonen eskubideei eta zerbitzuei buruzko informazioa** emateko; izan ere, Ikuspegiren arabera (2022), adibidez, biztanleriaren %5ek baino ez du ezagutzen Eraberean sarea.

14. 2022ko ekainaren 23an onetsia, Udalbatzaren ohiko bilkuran.

15. LGTBI+-eko pertsonak genero, jatorri, kultura, egoera administratibo eta aniztasun funtzional desberdinetakoak direla nabarmendu behar da. Funtzio aniztasuna eta LGTBI+-en arteko loturari dagokionez, [Nazio Batuetako Ezgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Batzordeak publikatutako Ohar orokorra Zbk. 5 \(2017\)](#), [modu independentean bizitzeko eta komunitatean parte-hartzeko eskubideari buruzko](#) testua irakurtzea gomendatzen da (60. paragrafoa).

16. "Breaking down silos" metodologia.

17. 2022ko ekainaren 23an onetsi zen, Udalbatzaren ohiko bilkuran, eta Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordearen irizpenaren 1.8 puntuan gomendatzen den bezala.

18. Hori adierazten da [orientazio sexual edo genero identitatearen aurkako arrazoiengatik biolentzia eta diskriminazioa babestearen inguruko Aditu Independentearen Nazio Batuen txostenak](#). Irakurketa gomendatua.

ARRETAREN esparruan, honako ekintza espezifiko hauek gomendatzen dira:

- ✓ Ibilbide judizialik ez duten, baina eragindako kaltea konpontzen edota LGTBI+ bizitzen kalitatea hobetzen lagun dezaketen intzidentzien gaineko **gizarte-mobilizazioak ahalbidetzea eta laguntzea**.
- ✓ Intzidentziaren salaketa edo erregistroa sustatzea LGTBI+ erakundeetan edo komunikabideetan.
- ✓ [Intzidente arrazista, xenofobo, antigitano eta LGTBI+fobikoen aurkako jarduera-protokoloa](#)ren edukien garapena baliabideez hornitzea eta bermatzea. Dokumentuak adierazten duenez, garrantzitsua da egokitzapen hori prebentziozko politika publikoekin osatzea, hala nola tokiko planarekin. Halaber, gomendatzen da prozesu hau arloko eragile estrategikoekin batera egitea, baliabideak ez bikoiztuz eta eraginkorrak izanik.
- ✓ **Udal-zentroen** funtzionamenduan **LGTBI+fobiari aurre egiteko normatiba indartzea**, biktima erdigunean jarrita ¹⁹.
- ✓ **Eraberean-en gida erreferentziatzat hartzea** [Tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza – Oinarrizko gida](#) izenekoa, eta gertutik jarraitzea [Gorrito-istiluen kontra borrokatzeko Espainiako III. Ekintza Plana](#).

Amaitzeko, gomendio horietaz gain, garrantzitsua da kontuan hartzea Donostiako LGTBI+ taldeak azken urteetan egin dituen eskaerak, hala nola kontsumotik urrun dauden aisialdi-eremuak; etxebizitzarako eskubidea; autokudeaketarako gaitasuna; autozainketa-borroka eta eraldaketa sareak sortzeko tokiak eskaintzea, etab. Proposamen horietako batzuk [hiriko \(2023\) LGTBI+ errealitateen txosten](#)eko gomendioen atalean jaso dira.

Horrela, LGTBI+ pertsonen berdintasunaren aldeko mugimenduaren lidergoa sustatzea [Nazio Batuen sexu-orientazioko eta genero-identitateko indarkeriaren eta diskriminazioaren aurkako babesari buruzko Aritu Independentek](#) ²⁰ praktika egoki gisa azpimarratzen duen elementuetako bat da. Zentzu honetan, Malta, Kanada, Costa Rica eta Estatu Batuetako adibideak aipatzen dira, non tokiko gizarte zibileko LGTBI+ ordezkariak sexu- eta genero-aniztasunari lotutako legeak diseinatu eta sortzen parte hartu zuten.

Era berean, [Europako Batzordearen LGBTIQ+ pertsonen berdintasunerako 2026–2030 estrategiak](#) ikuspegi hori indartzen du, erakundeen, estatu-kideen eta gizarte zibilaren arteko konpromiso kolektibo eta iraunkorra azpimarratuz, eta LGBTIQ+ erakundeen zeresan nagusia politika publikoen diseinuan, ezarpenean eta jarraipenean. Gainera, estrategiak parte-hartze mekanismo espezifikoak barne hartzen ditu, hala nola “LGBTIQ+ Policy Forum” delakoa, elkarrietzeta egituratua eta mugimenduaren lidergoa indartzeko helburuarekin.

19. 2022ko ekainaren 23ko Udalbatzaren ohiko bilkuran onartua.

20. Irakurketa gomendatua.



ERREFERENTZIAK

- **4/2023 Legea, otsailaren 28koa, trans pertsonen benetako berdintasun eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko**

Estatuko Aldizkari Ofiziala, 51, 2023ko martxoaren lekoa.

<https://www.boe.es/eli/es/l/2023/02/28/4>

- **4/2024 Legea, otsailaren 15ekoa, pertsona transak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa**

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 44, 2024ko otsailaren 29koa.

<https://www.legegunea.euskadi.eus/eli/es-pv/l/2024/02/15/4/dof/eus/html/>

- **Donostiako Udala**

39. akta, Udalbatzaren 2022ko ekainaren 23ko bilkurarena.

[https://www.donostia.eus/secretaria/asuntospleno.nsf/vListadold/CAB32238C0B403A6C1258861002DA026/\\$file/ac20220623-39.pdf](https://www.donostia.eus/secretaria/asuntospleno.nsf/vListadold/CAB32238C0B403A6C1258861002DA026/$file/ac20220623-39.pdf)

24. akta, Udalbatzaren 2024ko azaroaren 21eko bilkurarena.

[https://www.donostia.eus/secretaria/asuntospleno.nsf/vListadold/3DB4AECE45F420DAC1258BD30031BC14/\\$file/ac2024112124zigiludigitala.sin.pdf](https://www.donostia.eus/secretaria/asuntospleno.nsf/vListadold/3DB4AECE45F420DAC1258BD30031BC14/$file/ac2024112124zigiludigitala.sin.pdf)

2026. Gorroto arrazista, xenofobo, antigitano LGTBI+fobiko gertakarien aurrean jarduteko protokoloa.

[https://www.donostia.eus/home.nsf/0/B3A7ABA45CD11F82C1258DC30031943B/\\$file/PROTOCOLO_2025_EU_digital.pdf](https://www.donostia.eus/home.nsf/0/B3A7ABA45CD11F82C1258DC30031943B/$file/PROTOCOLO_2025_EU_digital.pdf)

2025. Donostian LGTBI+fobiarekin lotuta izandako intzidentziei buruzko txostena 2024.

[https://www.donostia.eus/home.nsf/0/4524E9C9005D4CB9C1258C8C003DED78/\\$file/LGTBI%2BFOBIA%20Txostena%20EUS.pdf](https://www.donostia.eus/home.nsf/0/4524E9C9005D4CB9C1258C8C003DED78/$file/LGTBI%2BFOBIA%20Txostena%20EUS.pdf)

2024. Donostian LGTBI+fobiarekin lotuta izandako intzidentziei buruzko txostena 2023.

[https://www.donostia.eus/home.nsf/0/6F93C12BFDB4C6D4C1258B1F002C390B/\\$file/LGTBIFOBIADESSEus2023.pdf](https://www.donostia.eus/home.nsf/0/6F93C12BFDB4C6D4C1258B1F002C390B/$file/LGTBIFOBIADESSEus2023.pdf)

2023. Donostian LGTBI+fobiarekin lotuta izandako intzidentziei buruzko txostena 2021/2022.

[https://www.donostia.eus/info/ciudadano/ddhh_actividades.nsf/voWebContenidosId/9A4CA4943A701A6FC125898E003F963C/\\$file/LGTBI+FOBIA%20DSS_euskera.pdf](https://www.donostia.eus/info/ciudadano/ddhh_actividades.nsf/voWebContenidosId/9A4CA4943A701A6FC125898E003F963C/$file/LGTBI+FOBIA%20DSS_euskera.pdf)

2023. Donostiako LGTBI+ errealitatei buruzko txostena.

[https://www.donostia.eus/home.nsf/0/6FD035D282DC39E2C1258AB300408D03/\\$file/Donostiako%20LGTBI%2B%20errealitatei%20buruzko%20txostena%202023.pdf](https://www.donostia.eus/home.nsf/0/6FD035D282DC39E2C1258AB300408D03/$file/Donostiako%20LGTBI%2B%20errealitatei%20buruzko%20txostena%202023.pdf)

- **Espainiako Gobernua, Barne Ministerioa (2025)**

III. Gorroto delituen aurka borrokatzeko ekintza-plana (2025-2028).

<https://www.lamoncloa.gob.es/serviciosdeprensa/notasprensa/interior/Documents/2025/240325-III-Plan-Accion-Delitos-Odio.pdf>

- **Europako Ekonomia eta Gizarte Komitea (2021)**

Batzordeak Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteari eta Eskualdeetako Lantaldeari – Berdintasunaren Batasunari egindako komunikazioari buruzko irizpena: LGTBIQ pertsonen berdintasunerako Estrategia 2020-2025.

<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=CELEX%3A52021AE0006>

- **Europako Komisioa (2025)**

Union of Equality: LGBTIQ+ equality strategy 2026-2030. Publications Office of the European Union.

https://drive.usercontent.google.com/download?id=1n5-YY7ESRJqJHkwjx4myoQazfJ7ZspSv&authuser=0&acrobatPromotionSource=gdrive_chrome-grid

REFERENCIAS

- **Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila eta Biltzen (2022)**

Gorrito arrazista, xenofobo, antigitano eta LGBTIfobikoko gertakarien aurrean tokian-tokian jarduteko gida.

https://www.euskadi.eus/contenidos/proyecto/giza_eskubideak_plana01/eu_def/adjuntos/Guia-de-actualizacion-local-EUSK-WEB.pdf

- **Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila eta Eraberean (2020)**

Tratu-berdintasuna eta diskriminazioarik eza - Oinarrizko gida.

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eraberean_guiabasica/eu_observat/adjuntos/ERABEREAN_GIDA.pdf

- **Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila eta EHUKo Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedra (2025)**

Txostena: gorrito-istiluak Euskadin 2024.

https://bideoak2.euskadi.eus/2025/06/18/news_102728/Euskadiko_gorrito-gertakariei_buruzko_2024ko_txostena.pdf

- **Ikusgune, Gasteizko LGBTI+fobiaren aurkako Behatokia (2025)**

2024. urtean Gasteizen sexu-orientazioaren eta genero-identitatearen aurka izandako gertakariei buruzko VIII Ikusgune txostena.

<https://ikusgune.eus/files/2025/05/informe-ikusgune-2024-euskeraz-inter.pdf>

- **Ikuspegi (2022)**

Neurtu 2021. EAEko aniztasunari buruzko barometroa: sexu- eta genero-aniztasunarekiko pertzeptzioak eta jarrerak.

<https://www.ikuspegi.eus/documentos/neurtu/2021/neurtu2021eus.pdf>

- **Kualitate lantaldea eta Aldarte Elkartea (2018)**

Desirak plazara. Desirak plazara. Gasteizko LGBTI herritarren errealitateei buruzko diagnostikoa. Gasteizko Udala.

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/95/11/79511.pdf>

- **Muniesa Tomás, M.ª P., Tomás Fernández Villazala, T., Mániz Cortinas, C. J., Colás Fuentes, E, Méndez Matos, G., Gómez Esteban, J., González González, M., Amado Hernández, M. P., Buquerín Pascual, S., & Matilla Molina, A. (2024)**

Espainiako gorrito-delituen eta -gertakarien bilakaerari buruzko txostena 2024. Barne Ministerioa.

https://www.interior.gob.es/opencms/export/sites/default/galleries/galeria-de-prensa/documentos-y-multimedia/balances-e-informes/2024/2024-INFORME_2024_Delitos_incidencias-odio.pdf

- **Nazio Batuak - Asanblada Orokorra (2019)**

A/74/181 Sexu-orientazioko edo genero-identitateko diskriminazio eta indarkeriaren aurkako babesari buruzko txostena.

<https://undocs.org/Home/Mobile?FinalSymbol=A%2F74%2F181&Language=E&DeviceType=Desktop>

- **Nazio Batuak - Giza Eskubideen Kontseilua (2018)**

A/HRC/38/43 Sexu-orientazioko edo genero-identitateko indarkeriaren eta diskriminazioaren aurkako babesari buruzko Nazio Batuen Aditu Independentearen txostena.

<https://undocs.org/Home/Mobile?FinalSymbol=A%2FHRC%2F38%2F43&Language=E&DeviceType=Desktop&LangRequested=False>

- **Nazio Batuak - Ezgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Batzordea (2017)**

Ohar orokorra Zbki. 5 (2017), modu independentean bizitzeko eta komunitatean parte-hartzeko eskubideari buruzkoa.

<https://undocs.org/Home/Mobile?FinalSymbol=CRPD%2FC%2FGC%2F5&Language=E&DeviceType=Desktop&LangRequested=False>



ERANSKINA

1. GLOSARIOA

LGTBI+ari lotutako kontzeptuak

Bitarra (sistema)

Giza generoak bi modutan (maskulinoa eta femeninoa) soilik existitzen direla eta horiek jaiotzean esleitzen direlako ideia sustatzen duen sistema. Gizarte batek pertsonak gizon eta emakumeetan oinarritutako rol, identitate eta atribuetan hierarkikoki nola banatzen dituen deskribatzeko ere erabiltzen da kontzeptua.

Bollera

Lesbiana esateko ere erabiltzen da termino hori, baina, hark ez bezala, konnotazio politikoa egozten zaio. Era berean, emakume-identitatetik aldentzeko identitate-kontzeptu gisa erabiltzen da.

Zisexuala / Zisgeneroa

Jaiotzean egungo kanon sozialen arabera esleitutako generoarekin identifikatzen den pertsona, hau da, bulbarekin jaio eta emakume gisa identifikatzen dena eta zakilarekin jaio eta gizon gisa identifikatzen dena.

Zisheteronormatibitatea

Pertsona guztiak zis eta heterosexuak direlako espektatiba, ustea edo estereotipoa, edota normala edo onargarria izaera hori delakoaren ideia.

Disidentzia (identitatea edo adierazpena)

Alderdiaren, erlijioaren, kolektibo ideologikoaren, gizartearen eta abarren oinarri diren doktrinei, sinesmenei, sistemari eta abarri buruzko desadostasuna. Dokumentu honetan, heteroarauaren kontrako disidentzia gisa erabiltzen da.

Genero-adierazpena

Pertsona bat, testuinguru sozial eta une historiko jakin batean, genero bakoitzari dagozkion patroien arabera, maskulintzat edo femenintzat identifikatzeko bidea ematen duten ezaugarri kulturalen adierazpena.

Heterosexuala

Gizonekiko desira sexual edota erromantikoa sentitzen duen emakumea edo emakumeekiko desira sexual edota erromantikoa sentitzen duen gizona.

Genero-identitatea

Pertsona bat berezkotzat sentitzen, aitortzen edota izendatzen duen generoarekin identifikatzea. Sexu-diferentziaren sistema bitarretik aldentzen bagara, genero-identitate desberdinak aurki ditzakegu, gizon-emakume izatera mugatzen ez direnak.



LGTBI+

Lesbiana, gay, trans*, bisexual eta intersexual hitzen sigla. + sinboloa sistema bitar zisheteropatriarkalaren arau hegemonikoak azpiratzen dituzten gainerako genero-identitate, adierazpen, orientazio edota gorputz guztiak ikusarazteko estrategia gisa erabiltzen da.

• Lesbiana

Beste emakume batzuekiko desira sexual edo erromantikoa sentitzen duen emakumea.

• Gaya

Beste gizon batzuekiko desira sexual edo erromantikoa sentitzen duen gizona.

• Trans*a

Jaiotzean esleitutako sexuarekin tradizionalki lotutako arau eta espektatiba sozialekin bat ez datorren identitatea edo genero-adierazpena duen pertsona.

* sinboloa terminoak biltzen dituen errealtate ugariak ikusarazteko estrategia gisa erabiltzen da, hau da, termino biltzaile gisa erabiltzen da.

• Bisexuala

Gizonekiko eta emakumeekiko desira sexual edo desira erromantikoa sentitzen duen pertsona (zis ala trans* diren alde batera utzita).

• Intersexuala

Zientifikoki maskulinoztat eta femeninoztat jotzen denaren ezaugarri biologiko sexual primario edota sekundario konbinatuekin jaiotzen den pertsona. Hau da, «ezaugarri maskulino» edota «ezaugarri femeninoen» arau soziala betetzen ez duten gorputzarekin jaio diren pertsonak. Lau alderdi elkartzen dira: ezaugarri kromosomikoak, hormonalak eta barruko zein kanpoko genitalak.

• Queer-a

Giza aniztasuna zentzu zabalean sustatzea, identitate finko eta estatikoetatik ihes egitea eta aldakortasunaren eta subertsioaren alde egitea xede duen gizarte-korrontea da. Batez ere AEBn hartu zuen indarra, 80ko eta 90eko hamarkadetatik aurrera.

• Ez-bitarra

Binarismotik kanpo dagoen genero-identitatea beren gain hartzen duten pertsonen aplikatzen zaien izendapena.



LGTBI+fobia

LGTBI+ kolektiboko pertsonetikiko ekintza, jarrera, pentsamendu eta sentimendu negatiboak, diskriminatzaileak edota bortitzak. Zuzeneko edo zeharkako ekintzak izan daitezke. Honako kasu espezifiko hauek daude:

- **Lesbofobia**

Lesbianismoarekiko edota lesbianekiko fobia.

- **Bollofobia**

Bollerismoarekiko edota bollerekiko fobia.

- **Homofobia**

Homosexualitatearekiko edota pertsona homosexualekiko fobia.

- **Transfobia**

Trans* egoera edota pertsonetikiko fobia.

- **Bifobia**

Bisexualitatearekiko edota pertsona bisexualekiko fobia.

- **Interfobia**

Egoera edota pertsona intersexualekiko fobia.

- **Enebefobia**

Zitazio, adierazpen edota identitate ez-bitarrarekiko fobia.

- **Lumafobia**

Luma duten pertsona edota adierazpenetikiko fobia.



Sexu-orientazioa

Beste pertsona batzuekin harreman afektibo-sexuala sortzeko desira sexual edota erromantikoa.

Patriarkatua

Menderatze-sistema soziala, emakumeen eta femeninotzat hartzen denaren mendekotasuna eta ikusezintasuna erreproduzitzeko ezarria. Matxismoan oinarritutako egiturazko desberdintasun-egoera bat sortzen du.

- **Zisheteropatriarkatua**

Pertsona zisexualen, zisgeneroen edota heterosexualen nagusitasuna barne hartzen duen kontzeptua.

Serofobia

Giza immunoeskasiaren birusa (GIB) duten pertsonenganako ekintza, jarrera, pentsamendu eta sentimendu negatiboak, diskriminatzaileak edota bortitzak. Zuzeneko edo zeharkako ekintzak izan daitezke.

Intzidentzia-erasoekin lotutako kontzeptuak

Eraso fisikoa / Lesioa

Pertsona bati gorputzean egindako eraso guztiak dira, hala nola kolpeak ematea, objektuak jaurtitzea, giltzapetzea, astinduak ematea eta marruskatzea, kalte fisikoak eragin ditzaketen beste jokabide batzuen artean. Hau da, beste pertsona baten gorputz-osotasunari edo osasun fisiko edo mentalari kalte egitea.

Hitzezko eraso / Iraina

Indarkeria mota bat da, mezu edo diskurtso mingarri batekin beste pertsona bati min egitea xede duena. Hau da, kalte egiten dio beste pertsona baten duintasunari, haren ospea gutxitu edo haren autoestimua aurka egiten baitu.

Mehatxua

Delitu bat da, zeinaren bidez norbaiti iragartzen zaion hari edo haren ingurune hurbileko beste pertsona batzuei zuzenean kalte egin edo arriskua eragin nahi zaiela.

Kalumnia

Delitu bat da, zeinaren bidez norbaiti delitu-egitate bat faltsuki egozten zaion, hau da, pertsona bat bidegabeki salatzen da, delitu bat egiteagatik.

Derrigortzeak / Larderia

Delitu bat da, zeinaren bidez indarkeria erabiltzen den norbaiti legez debekatuta ez dagoen zerbait egitea eragozteko edo nahi ez duen zerbait, bidezkoa edo bidegabea, egitera behartzeko.

Kalte materialen delitua

Jabetza publiko edo pribatuko ondasun material edo immaterial bat suntsitzea edo hondatzea.

Gorrito-delitua

Edozein arau-hauste penal, pertsonen edo jabetzen aurkakoak barne, baldin eta biktimaren, lokalaren edo arau-haustearen helburuaren talde batekiko lotura, sinpatia, kidetza, babes edo partidetzan oinarritzen bada (erreal edo hautemana). Hala nola, bere sexu-orientazioagatik, genero-identitateagatik edo genero-adierazpenagatik (erreal zein hautemana).

Ezjakintasuna

Gauza bati buruzko informazioarik edo haren izaera, ezaugarriak eta harremanak ulertzeko informazioarik eza.

Diskriminazioa

Ezaugarri fisikoetan, jatorri nazional edo sozialean, kolorean, sexu-generoan, hizkuntzan, erlijioan, iritzi politikoan, posizio ekonomikoan edo beste edozein gizarte-egoeratan oinarritutako bereizketa, bazterketa, murrizketa edo lehentasuna, pertsona guztien giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak berdintasun-baldintzetan aitortzea, gozatzea edo baliatzea deuseztatzea edo gutxitzea xede duena.

Gorrito-diskurtsoa

Komunikazio-ekintza bat da, historikoki arraza, etnia, erlijio, sexu-orientazio edo sexu-identitate, desgaitasun eta abarreatik diskriminatua edo jazarria izan den pertsona-talde baten inguruan iritzi dogmatiko eta suntsitzaile bat sustatzea eta elikatzea helburu duena.

Gorrito-intzidentzia

Biktimak edo beste edozein pertsonak arrazistatzat, xenofobotzat, LGBTI+fobikotzat edo bestelako intolerantziatzat hartzen duen aurreiritzizko ekintza, nahiz eta delitua ez izan.

Lapurreta

Indarra edo larderia erabiliz inoren ondasunez edo eskubideez jabetzeko delitua.

Tratu umiliagarria

Biktimei beldur-, larritasun- eta gutxiagotasun-sentimendua eragin diezaiekeen tratua, haiek umiliatu, doilortu eta, hala badagokio, haien erresistentzia fisiko edo morala urra dezaketenak.



ERANSKINA

2. INTZIDENTZIAK JASOTZEKO TXANTILOIA

INTZIDENTZIA LGTBI+FOBIKOARI BURUZKO INFORMAZIOA BILTZEA			
Intzidentzia-kodea:	Data:	Helbidea:	
Deskribapena:			
DATU-BILKETA			
Intzidentzia mota: ☐ Eraso fisikoa Lesioak ☐ Mehatxuak ☐ Derrigortzeak Larderia ☐ Gorroto-diskurtsoa ☐ Tratu umiliagarria ☐ Kalteak ☐ Hitzeko erasoak Irainak ☐ Kalumniak ☐ Lapurreta ☐ Kalte materialak ☐ Diskriminazioa ☐ Ezjakintasuna	Kausa: ☐ Homofobia ☐ Lesbofobia ☐ Bifobia ☐ Transfobia ☐ Interfobia ☐ Enebefobia ☐ ...	Leku mota: ☐ Bide publikoa ☐ Lorategia, parkea... ☐ Garraiobidea: trena, autobusa... ☐ Bizilekua ☐ Gaueko aisialdia ☐ Beste batzuk	Honela erregistratua: ☐ Aurrez aurre ☐ E-maila ☐ Tel. ☐ Sare sozialak ☐ ...
Biktimaren profila: - Generoa (autodeterminatua): - Adina: ☐ Adingabeak ☐ 18-25 ☐ 26-40 ☐ 41-50 ☐ 51-65 ☐ 65 gorakoa - Jatorri / Pertenentzia kulturala: - Dibertsitate funtzionala: BAI / EZ - Gizarte-bazterketa jasateko arriskua: BAI / EZ		Erasotzailearen profila: - Generoa (autodeterminatua): - Adina: ☐ Adingabeak ☐ 18-25 ☐ 26-40 ☐ 41-50 ☐ 51-65 ☐ 65 gorakoa - Jatorri / Pertenentzia kulturala: - Dibertsitate funtzionala: BAI / EZ - Gizarte-bazterketa jasateko arriskua: BAI / EZ	





DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Giza Eskubideak
Derechos Humanos

